

Anuario de EUSKO-FOLKLORE
 Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**
 Tomo XXI. - 1965 - 1966. - Páginas 9-12

PERSONEN BIZITZARI BURUZ ALE BATZUK IRUN'EN

N. ALZOLA GEREDIAGA'K

— I —

ITXEKO PERSONA BAT ILTZEN-DEN DENBORAKO OITTURAK

Baseri batian persona bat iltzen den egunian inulabarrian erretzen da bere oyeke lastaira. Biñon ezta tela erretzen. Barrengo ostua (artuaren ostua, txurikiña) bakarrik.

Lastaira erretzen zen itxetik atera eta lemiziko bire gurutzian. Itxeko familiko batek edo geiyok erretzen zuten lastaira.

Sua piztutzen zuten kandela bereinkatuakiñ.

Gero denboratan, andik pasatzen zianak aitaren eifñ eta erresatzen zittuzten iru Aita-Gure, difuntuaren animaren izenian.

Difuntua itxian dagon bittarte, dena itxiya egotenda, eta gorputza itxetik ateratzian tximinittik kia ateratzen da, eta atiak eta leyuak denak iriki.

* * *

Itxeko bat iltzen den denboran, naiz izan aingerua, edo persona aundiya, familiko buruzariya [sic] joaten da erlian ondora, eta jotzen du eultza iru aldiz biatzen koskorraikiñ eta esaten diyo iru aldiz:

—Maria, Maria, Maria. Il-tzaigu nagusiya (edo erosifi) eta ez joan zu emendik.

Orrekin bukatzen da.

* * *

Aingeru bat (zazpi urte bittarte) iltzen denian iru il-ezkillu jotzen dira, eta persona aundiya iltzian jotzen dira amaika, gizona bada; andria bada, bederatzi.

* * *

Leno zagon oittura iru gizon miñddunak eta iru andre miñddunak eramaten zittuzten iru kapajantziyak apaizekenak. Apaizari paetzen ziyoten biña errial kapa oiekatik eintierruko buelta egifarte; gero kapa oiek berriz eraman apaizari.

Gizon-miñddunak eta andre-miñddunak izatentzian parienterik alde-nekuak.

Gorputza onela eramaten dute:

Lendabiziko, gurutzia kiñ, gorputzan aurrian, auzorik aldeeneko gizona, eta apaiza etortzen denian orduan kendu eitten da gizona bere gurutzia kiñ.

Gero, miñddunak. Eta gero gizonak atzetik. Gero, andre-miñddunak. Eta gero andriek atzetik.

* * *

Orduan etzen joaten oaiñ bezela familikorik iñor ere. Denak gelditzen ziran itxian.

Erbestekuak baskaitten-tzuten difuntuan itxian oo taberna batian, eta difuntuaren itxequak pagatzen zuten kontua.

* * *

Miñddun gizonak eramaten-tzuten apaizen kapa, apaizak bezela, traje beltza azpittik eta kapa gañetik.

Eta andriak beti bezela beltzez jantziyak, eta Meza Nagusira joateko mantal medinuakiñ egitten-tzuten mantua burutik eta gerriraño, eta gerriryan lotzen zuten sokarriakiñ. (1)

— II —

ESKOLARA

Ni joan naiz eskolara urte batian, amabi urtetik amairura. Eta orduan pixka bat aundittu nitzan eta gero itxian geldittu.

Joaten giñan Kate'ko eskolara. Maistra genuan doña Joxepa Ginea Santozildes. Zen Lodroño'ko (2) Euskaraz etzekiyen. Zittuen iru seme eta gizona treneko makinista.

Eskolan erakusten-tzigun asko: eskribitzen, kontuak ateitzen, Dotriña ere bai, josten ondo, gaintxilluan ere bai, bordatzen ere bai. Nik inuen Amabirjiña Karmen'go bat kuadruan sartzeko seda asko kostata.

Ikasi genuen kantatzen «Salve Maria, Reina del Cielo, Madre y consuelo del pecador, viba (3), duzura (4), Madre y Amor». Baita kantatzen genuen [sic] numeruak «una y una dos» erderaz.

Etzigun erakusten deus ere euskaraz. Dena erderaz.

Guk ezkenuen deus pagatzen Katian, eta ikasten genuen asko, eta bazen beste eskola bat Bidaurre'n etzuten erakusten Dotriña eta moldeko letra leetzen besterik, eta pagatzen zen bi erriel illa betien.

Nere amak bazittuen andre asko etzutenak posible beren aurrak eskolara bialtzia, eta esaten-tziyoten gure amari:

—Luisa, aurrak komulgatu ber eta eztaki deus ere.

(1) Irun'go Benta'ko Salvadora Ribera eta Aranburu andra-alargunari itzez-itzez artua 1959'gko. urrillean.

(2) Orrelaxe. *Logroño* esan gure dau.

(3) Orrelaxe. *Vida* esan gure dau.

(4) Orrelaxe. *Dulzura* esan gure dau.

Eta gure amak esaten-tziyen:

—Biali nere itxera bazkaldu ta ondotik.

Eta siesta eñ biarrian erakusten-tziyen.

Erresatzen zuen gure amak arrosariyua, bost misteriyokua, eta gero erakusten-tziyen Dotriña, eta andikan joaten ziran kaleko eskolara, igande arratsaldetan.

An apaizak artzen ziyoten leziyua, jakitteko zemat Dotriña zekitten eta andik komulgatzen ziran Irun'go elizan.

Orduan-tzen lenbiziko komuniyua amabi urte inguruan, eta lenbiziko konfesatu zazpi urtetik aurrera. Elizara etortzen-tzian konfestera beren amakiñ edo aizpakiñ. Orduan etziran maistrak umiekiñ etortzen konfesatzera. (5)

* * *

— III —

ZINGIYA. ZINGI-AIZIA SENDATZEKO


Zingi-aizia sendatzeko eitten-tzuen onela.

Ontzi batian jartzen-tzen sua egur-ikatzakiñ. Eta gero ara botatzen-tzuen erramu ostuak eta erromerua.


Gero botatzen-tzuen oriyo piska bat.

Ateratzen-tzen kia txuri-txuriya. An jartzen-tzen miña zen tokiya tapatua manta batekiñ eta gero sendatzen-tzuen andriak eitten-tzuen ziiñatu lau erramu osto jarri gurutzian eta ayekiñ eñ gurutzia miñ den tokiyan.

Bi gurutze alkarren gañian:



Eta beti alde onetik siñaten-tzun miñaren gañian. Eta eitten-tzuen:



Gero erramu ori suari bota eta erre.

* * *

Berriz artu lau erramu ostu, eta berriz siñatu len bezela, eta berriz bota suari.

* * *

Eta berriz artu beste lau, eta berriz ere siñatu len bezela. Eta aiek bota suari eta artu bañua ondo tapatuta mantekiñ miñ duen tokiya.

Bañua artzenda erromerua eta oriyu pixka bat eta amabi ostu siñatzen dianak botatzen duten kiekii. (6)

(6) Salvadora Ribera Aranburu'ri artu nion 1959 urteko martiyan.